

40 URTE GEROAGO

Lan Deya (1976)



1936-ko Urrilaren 1-ean Errepublika denporako Parlamentuak Euzkaridentzat autonomia araudia ofizialki onartzen eban, eta ile orren 7'an Agirre jaunak Gernikako zugaitzaren azpian bere Lendaritza lana beteko ebala zin egin eban.

Erriak nai zituan elburuak guda batez lortu al izan ziran, eta guda onek iru ilabetez iraun eban.

Erriak "Elgetako araudia" lez ezagutu eban, zergatik? Araudi auek gudataldea erri onetara eldu eta gero, onartuak izan ziralako.

40 urte igaro dira eta orain, zeintzuk dira gure egoera eta gure asmoak?

Orain, itxura baten, demokrazia giro bat jarri nai da, lengo diktadurak gure aldietako arazoei erantzun bat emoteko ez daukala balio izan konturatu ondoren. Bakoitzak bere egitaraua gitxi gora beera prestatuta dauka. Baina akordio al danik eta zabalena lortu bear bada, ezin izango da norberaren egitarau bat egin. Leen lana, demokrata guztiak onartzen dituen iru edo lau puntu funtsezkoak izendatzea izango litzateke.

Zer da guretzat demokrazi giro bat jartzea? Euzkadi mailan, fueroen barrizatze eta gaurkotutea; au da, euskaldunok asiera batetik geurea dan gobernua izan dagigun. Gitxienez, orain 40 urte indarkeriz kendu jakuna.

Gure jokabidea 40 urte oneitan argi dago. Diktadura baten aurka borrokatzea eta gure jokabidea au izan bada, orain ez dagiela esan euskal problema geroago konpontzekoa danik.

Gure elburua oligarkia inperialistaren eta bere inguruan dabilzanen aurka burrukatzea da.

Orain asita euskal prolemari erantzunik emoten ez bajako ez jake demokrazia giro batek exijitzen duen prolemei erantzunik emango.

Demokrazia batek bere barruan Fueroak barriri jartzea exijitzen dau, eta ori jartzen ez dan bitartean ezin izango dogu demokrazia bat dogula esan. Demokrazia dagola esan aal izateko, leen pauso lez, Euzkadiren autonomia etorri bearko jaku.

Ez dago benetako politika jokirik indar guztiak alkartu barik eta gaurko Espaniako estaduan ezin izango da demokrazi egoera bat lortu oposizioko indar demokratiko guztiak joko orretarako alkartzen ez badira.

Euzkadiko langileok ez dogu jarriko damokratiko barruka "regimen unitario" baten menpean. Era bardinean, Espaniako langileak bere ez dabe ipiñi ez eta ipiñiko ere, euren burruka ori sindikal askatasun gabeko "regimen liberal" batean.

"Regimen unitario" bat jartzea guztien kalterako fascismo bati laguntza emotea izango litzateke.

Naiz eta ELA-STV-k sindikal arlotik jokatu, badaki euskal langileen elburuak fascismoa iltzera eta demokrazi giro bat jartzera doazela. Gure langile mailako elburuak demokraziaren alde eta edozelango zapalkuntzaren aurka doaz. Ortarako "nacional imperialista" dan oligarkia eta bere menpeko diran indarren aurkako alderdi guztien batasuna bilatzen dogu.

Au dala ta, ELA-STV-k ezin izango dau euskal langileria saldu Euzkadiren autonomia ukatuz. Au Euskalherri guztiaren exijentzia bat da, eta orregatik, baita langileriarena bere. Au "politika egitea" dala adierazoten emotea, lelokeria bat da.

Zein eratako demokrazia jarriko da, demokrazia bera ez badaukagu? Eta onela bada, zelan artuko dogu parte langileok?

Nai ta nai ez, demokraziarako aukera bat bakarra dogu.

Euskal sindikalgintza langillegoaren esku bai dago, eta arek gura eta aal dauena izango da.